

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure gurrpilak gauzatu baino lehen [Polielastic Cauchos](#) deituriko enpresarekin elkarlanean arituko gara, honek gure gurrpilak ekoizteko behar dugun kautxua salduko digute. Honela gure produktuaren merkaturatzea bezeroentzako eskuragarriagoa izatea ahalbidetuko digu. Gainera, merkaturatzea merkeagoa izatea ahalbidetzeaz gain erabiltzen dugun lehengai hau kalitatezkoa izateari garrantzia emango diogu, izan ere, Polielastic Cauchos enpresak kalitatezko kautxua egiten adituak dira.



Bestalde, [Fundimeca Metal](#) enpresarekin ere elkarlanean arituko gara, honek aguna egiteko behar dugun altzairua hornituko digute: enpresa honek beharrezko kalitate probak gauzatzen dituzte bezero guztien segurtasuna ziurtatzeko asmoz, beraz kalitateaz gain lortu nahi dugun segurtasuna izatea ahalbidetuko digute.



Enpresa hauekin aliatuko gara gure lehengaien hornitzaile gisa izan daitezen, hau da, materialen eskuragarritasuna bermatzeko harremanak sortuko ditugu. Aliantza dela eta partaide guztiak onurak irabazi ditzazkegu, haiek lehengaien prezioa merketuko digute eta horren truke bi enpresak babestuko ditugu gurpiletan haien logoak ipiniz.

Altzairuaren erabilerari dagokionez adituak ez garenez, [Tolosaldeako ekoizpen programazioa fabrikazio mekanikoko](#) goi mailako ikasleei laguntza eskatuko diegu gure hagnak egin ditzaten soldata baten truke.



Lehen aipatu dugun bezala, gure gorpilen helburua denon segurtasuna bermatzea da, bai erabiltzaileena zein langile guztiena, beraz, lehengaiak hornituko dizkiguten enpresez gain, [Save The Children](#) erakundearekin ere aliatuko gara. Izan ere, kautxoak Hawai eta inguruetan dagoen zuhaitz mota batetik ateratako likidotik abiatuta lortzen da eta hau lortzeko milaka umeek egiten dute lan egunero. Hori dela eta, ez zaigu aproposa iruditzen enpresan erabiliko ditugu lehengaiak umeen explotazioaren ondorioz lortzea, beraz, erakunde honekin aliatuko gara sektore honetan lan egiten duten umeen bizitza hobetu ahal izateko eta bide batez lan hau seguruagoa eta duinagoa izan dadin.



Laburbilduz, externalizazioari eutsiz enpresen artean onurak ekarriko dizkiogu elkarri.